

SALBATORE MITXELENA AUZO ELKARTEA



Salbatore Mitxelena
AUZO ELKARTEA

EKINTZA MEMORIA

2025 URTEA

1.- SARRERA.

Salbatore Mitxelena Auzo Elkarteak hainbat ekintza antolatu ditu aurten auzoa dinamizatzeko. Jarduera horiek beti antolatu izan ditu elkarteak, auzoan interesa duten pertsonen partizipazioa sustatzeko.

2.- EGINDAKO EKINTZEN ETA JARDUEREN GASTUEN ZERRENDA.

SALBATORE MITXELENA AUZO ELKARTEA			
GASTUEN ZERRENDA 2025 URTEA			
CIF: G-20463345 / IBAN: ES0830350029690290109252			
GASTUAK			
GASTU FINKOAK		DATA	ERANTSIAK
Elkartearen web orriaren eta web-orriaren domeinuaren urteko ordainketa	319,44€	25/04/08	E1-1
	39,80€	25/04/09	E1-2
	63,52	25/05/22	E1-3
Urteko aseguru-prima	173,22€	25\01\14	E2
HORNIKUNTZEN ETA ESKURAGARRIEN GASTUAK		DATA	
Fotokopiak			
Garbiketako gailuak			
BESTE GASTU BATZUK AURREIKUSITAKO GASTUAK		DATA	
Jakoba Errekondo baratzari buruzko Hitzaldia	263,50€	25/05/15	E3
Jakoba Errekondo pisaiari buruzko Hitzaldia	263,50€	25/06/05	E4
Sendabelarraren ikastaroa (bi saioak)	440,00€	25\06\19-21	E5
Buruarinaren tailerra 1	375,25€	25/10/04	E6-a
Buruarinaren tailerra 2	358.62€	25/10/18	E6-b
<u>Errelexiologiaren ikastaroa</u>	300,00€	25/10/30	E7
Josten asteko tailerra (bi saioak)	65,20€	25/11\11-13	E8-a
	40,60€		E8-b
Franziskotarren liburutegian bisita gidatua	----	25\11\28	--
BESTE GASTU BATZUK		DATA	
Hiru mahai tolesgarri erostea	224,85€	24/09/15	E9
Arbel bat eta marrazketa-tresnak erostea	151,93€	26/01/27	E10-1 / E10-2 / E10-3
GUZTIRA		DATA	
		3.079,43€	26/01/29

3.- EGINDAKO EKINTZEN ETA JARDUEREN DESKRIKAPENA ETA GASTUEN JUSTIFIKAZIOA.

Beste urte batean, elkarteak udal dirulaguntza jaso du auzoan jarduerak egiteko, eta, beraz, eskerrak eman nahi dizkizuegu. Elkarteak azken urteetan errepikatu diren hainbat jarduera egin ditu, izan duen onarpen egiaztatuagatik. Era berean, zenbait bizilagunek eskatutako jarduera berri batzuk garatu ditugu. Gainera, gure lana egin ahal izateko behar dugun materialean inbertitu behar izan dugu.

Jarraian, horien deskribapen laburra.

3_1.- Jakoba Errekondo Bratzari buruzko Hitzaldia.

Landarezaintza ikastaroa. Udaberrian egiteko ekitaldi ezin hobea, baratzak eta etxeko lorak nola zaindu ikasten.



Jarduera honek onarpen ona izan du. Gizonen eta emakumeen arteko parekotasunarekin.

3_2.- Jakoba Errekondo Paisaiari buruzko Hitzaldia.

Landarezaintza ikastaroa. Udaberrian egiteko ekitaldi ezin hobea, baratzak eta etxeko lorak nola zaindu ikasten.



Jarduera honek oso interesgarria izan zen. Gizonen eta emakumeen arteko parekotasunarekin.

3_3.- Sendabelarraren ikastaroa.

Sendabelarren ikastaroa, Sara Letamendiaren eskutik, bi saiotan banatu da aurten.

SENDABELARREN INGURUKO IKASTAROA

(Sara Letamendia)

NON?

Mitxelena kalea 51. zenbakian

NOIZ? Bi egunetan:

- Ekainaren 19an -----17:00-20:00
(ukenduak egingo dira lokalean)
- Ekainaren 21ean-----10:00-13:00
(landareak ezagutzeko irteera egingo da)



IZENA EMATEKO:

mitxelenaelkartea@gmail.com

edo 628203037-an

www.mitxelenaelkartea.com



ZARAUZKO UDALA



Jarduera honek onarpen ona izan du. Aurten ere gehienak emakumeak dira, eta kolektibo horren interes espezifikoak adierazten dute.

3_4.- Buruarinaren tailerra.

Buruarinak egiteko ikastaro edo tailerra, famili tailerra da. Dauden 16 modeloetatik, aurretik aukeratu beharko da zein figura egin behar duen, materiala aurrez prestatzeko.

Ume eta gurasoek arratsalde eder bat egin dute elkarrekin buruarinak egiten, pailazoak bikingoak, azenorioak, etab.

**BURUARINAK EGITEKO
IKASTAROA**
Mitxelena elkarteko lokalean

Non?: Mitxelena kalea 51.
Noiz? : urriak 4 - 17:00tan

Bazkideak dohainik
Bazkideak ez direnak 5euro

Izena emateko:
mitxelenaelkartea@gmail.com

Informazio gehiago:
www.mitxelenaelkartea.com



22 neska-mutilentzat prestatutako jarduera, lokalaren edukieraren arabera. Aurten bi saiotan, 40 neska-mutilek egin zuten jarduera, nesken eta mutileen arteko parekotasunarekin.



Jarduera hau da gehien onartu dena, eta egiaztatu dugu oso jarduera egokia dela gurasoen eta seme-alaben arteko harremana indartzeko.

3_5.- Errelexiologiaren ikastaroa.

Errelexiologiaren ikastaroa arrakasta handia izan du. Ikastaroa alor honetako sarrera bat zen, gaiaren hedadura kontuan hartuta. Horretan sakontzea hurrengo urteetarako utziz.

MITXELENA AUZO ELKARTEAN ERREFLEXOLOGIA

(Eider Peñagarikano)

Urriaren 30ean
Mixelena kalea 51.
Arratsaldeko 18:00tan

Izena ematea:
mitxelenaelkartea@gmail.com
www.mixelenaelkartea.es
600629363



3_6.- Makinan josteko ikastaroa.

Aurten berriro antolatu dugu tailer hau. Kontxi Aristi auzoko bizilagunak zuzendua. Bi eguneko ikastaroa izan da. Ikastaro bakoitzean gehienez 10 pertsona.

JOSKINTZA TAILERRA (NECESERRAK) KONTXI ARISTI



Non?
MITXELENA
KALEA 51.n




Noiz?
Azaroak 11ean
eta 13an



Arratsaldeko
18:00etan

Izena emateko:
www.mixelenaelkartea.com
mitxelenaelkartea@gmail.com
679670940



Jardueraren tradizioaren arabera, parte-hartzaile gehienak emakumeak izan dira.



3_7.- Frantziskotarren liburutegian visita gidatua.

Zarautzen dugun altxor bat. Felipe III.ren idazkaria zen Juan de Mancisidor zarautzarrak 1610ean eraiki zuen San Joan Batailatzailearen konbentua. 1617an frantziskotarrek hartu zuten. Bertan dago liburutegi ikusgarri hau.

Liburutegi honetan aurkitu ziren Joanes de Etcheberriren lanak eta Mogelen "Peru Abarka".

FRANTZISKOTARREN LIBURUTEGIAN BISITA GIDATUA



Azaroaren 28an
10:00etatik 11:00etara (Gaztelera)
11:00etatik 12:00etara (Euskaraz)

Izena emateko:
mitxelenaelkartea@gmail.com
www.mixelenaelkartea.com
628203037

Bixitari kopurua mugatua izango da



Jarduera interesgarria eta helduen harrera ona. Gizonen eta emakumeen arteko parekotasunarekin. Bi bisita egin ziren, euskaraz eta gaztelaniaz, eta 40 pertsona inguru bertaratu ziren.

4.- AURTEN EGINDAKO JARDUEREN ONDORIOAK.

Kontrastatzen da estrategia ona dela aurreko urtean arrakastaz egindako jarduerak ahal den neurrian errepikatzea. Horrela, urtea jarduera berriekin osatu dugu, horietako asko onarpen handiarekin. Proposamen batzuk aurrerago egiteko utzi dira, baliabiderik eta denborarik ez dagoelako.

5.- JARDUERAK GARATZEKO BEHAR DEN MATERIALA EROSTEA.

Elkartearen lokalean jarduerak garatzeko behar den materiala erostea. Baita denboraren poderioz hondatzen joan diren tresnak berritzea ere:

- Hiru mahai tolesgarri erostea, oraingoen berdinak, hautsi direnak ordezkatzeko.
- Arbel bat erostea hitzaldiak eta tailerrak egin ahal izateko. Baita erabiltzeko tresnak ere.

